

LASKURAIN FELIX San Martin Baserria

Berrigara



aratust^teak!

Munibe plaza Pazkuetarako zabalik | Neberetako elurzuloa txukunduta laster

ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak, era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxufea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikientzat inoiz egin den gauzarik handiena.



5 URTEKO GARANTIA
www.nissan-almerratino.com

1.8-KO MOTOREA
COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 Di MOTOREA
COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA
AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU



Fatxada polita

Asis Iriondo / Irakaslea

Asteburuan aratusteak ospatuko ditugu, beste zerbait jantzita geure burua mozorrotzen dugun garaia.

Orain dela hogeitun urte, otsailaren 23an, berdez jantzitako gizon bibotedun batzuek Espainiako parlamentuan egin nahi izan zuten jai, 'Que se sienten, coño'ka. Euren helburua zen eta da, denok guztiok euren agindupean izatea. Benetako ikuskizuna mozorrotzek gabe!

Gaur egun, txapelokerrak atzean lagata, lehengo lepotik burua daukaten arren, itxurak garrantzi handia du. Itxurakeria nagusi den garaian, hona hemen XXI. mendeko inauterietan ideia horien guztien ordezkari izan daitekeen pertsona baten izaera eta janzkera, inork jaiotan erabili nahi badu, erabil dezala, baina kontuz, pertsona horien ondoan ibiltzea kaltegarria da eta.

Larrua zuri-zuria, ez zikindu zeure burua txiskeroz belztutako kortxoaz! Zertarako dugu atzerritarren lege berria? Gu geu gara nagusi eta gainontzekoēi guk nahi dugunean baino ez diegu sartzen lagako.

Burua: ahotik ez duzu euskaraz berbarik esango, izurrite beltza da. Hori bai, euskaraz zerbait idatzita ikusiz gero, polizia deitu garbi dezaten, bi, hiru edo lau hizkuntza ikas dezakeen burmuin horrek arazo handiak baititu euskara ikasteko, nahiz eta Iraken edo Balkanetan botatako uranioak ez dion kalterik egin; bota uranioa, zer gertatuko ote da? Ez dakigu, baina guregandik urrun denez, guri bost!

Aurpegian bizar handia; gorputz sendoa, beso gihartsuak eta eskumako besoaren goialdean lehen harro-harro eramaten zenuen tatuajea: 'Una, grande, libre' (garai baten, ezabatzen saiatu zinen, baina ezin).

«Orain dela hogeitun urte, otsailaren 23an, berdez jantzitako bibotedun batzuek Espainiako parlamentuan egin nahi izan zuten jai, 'Que se sienten, coño'ka»

Goitik behera traje dotorea, ondo plantxatuta. Barrualdean tiranteak eta alkandora urdina, oso zaharra izanda ere, duela 40 urte bizi izandakoa gogoratzea asko gustatzen zaizu eta.

Karteran, gominaz zikindutako orrazia, karneta eta emaztea eta seme-alaben argazkiak. Horrekin batera, 70.000 pezeta gaur gauerako. Horixe bera da Eusko Legebiltzarrean hilabete pasatzeko «pobreei» emateko onartu duzuen. Nola igaro dezakete hilabete osoa?

Hori guztia jantzita, elegante-elegante egongo zara. Honezkerō, pentsatzen dut pertsona bat etorriko zitzaizula burura, baina badaezpada Imanolek aspaldi kantatzen zuen kanta baten bidez azalduko dizut noren antza izango duzun hori guztia jantzita eta pentsatuta (ordenagailuak ere lagundu dit, kantua mozorrotu du eta):

«Es mayor/Sobre el serante las nubes/Son peces contaminados./Es Mayor/Santurce sufre que sufre/ha muerto ya Baracaldo./¡Alerta ya la soterá!/Santurce va agonizando./Para qué coño sin vida/queremos un señor Mayor».<

barruan



Antton Jaime

Errepideetako Diputatua

«Eibar-Gasteizek bidesaria behar duela badiogu, ez da inoren probetxurako»

6.



Eñaut Uriarte

Ikaslia

«Lastima da, baiña gero eta jende gehiago ikusten da mozorrotzeko»

13.



Reyes Azkoitia

Pilota sailekoa

«Deba arroko txapelketan, jubenil eta seniorretan, aurrera egiteko aukera dugu»

17.

hi, gazte!



BEKAK

Begiraleak. YMCA España. Nazioarteko kanpamentuko begirale-programa Estatu Batuetan. Programan sartzen direnek 20-27 urte bitarteko adina izan behar dute, ingelesezko erdiko maila eta kiroltako edo gizarte eta kulturako ekintzetan eta kanpamentuetan ume eta gazte taldeekin urtebete baino gehiagoko esperientzia izatea. Epea: apirilak 6.
Natura-zientziak. Ramon Areces Fundazioa. Atzerriko unibertsitate eta ikerketa zentroetan natura-zientzien esparruko ikasketak sakontzeko XIII. bekak. Epea: apirilak 27.

IKASTAROAK

Hainbat arlotako ikastaroak: pintura, yoga, dantza, eskulanak, informatika, aisialdia, begiraleak, hizkuntzak...

SARIAK

Kartel lehiaketa. Zarauzko Udala. Kartel saritua Zarauzko Udala grabatzen dabilen Zarauzko Kantak izeneko diskoaren azala izango da. Epea: martxoak 2.

Jaizkibel. Euskadiko eta Nafarroako Errege Automobil Kluba. Jaizkibel mendirako XXXV. igoeraren kartel lehiaketa. Epea: martxoak 29.

Eskultura. Caja Vital Kutxa Fundazioa. Arabako eskultura-ibilbiderako lehiaketa. Eskulturak Amurrio, Murgia, Urizaharra eta Erribera Beitian jarriko dira. Epea: maiatzak 12.

Marraskia. Renfeko hurbileko trenak. Renfeko hurbileko trenen V. marraski lehiaketa. Epea: martxoak 20.

LAN ESKAINTZAK

Bi informatikari. Donostiako Udala; Udal Musika Zentroa. Epea: martxoak 1.
Antolakuntza eta kalitate teknikaria.

Iruñeko Udala. Enpresaritzan edo Ekonomian Lizentziatuak edo Antolakuntzako Ingeniaritza. Epea: martxoak 5.

Udaltzaina. Zarauzko Udala. OHO, LH-I edo baliokidea. Lan- poltsa. Epea: otsailak 24.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefona: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-erri nahiz probintzia gutzikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Begittakua izan

Maiteena, kutunena izan.
– Ni naiz gure amandrian begittakua.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Otsailak 15, eguena	16 °C	2 °C	– 1/m ²
Otsailak 16, egubakoitza	12 °C	2 °C	– 1/m ²
Otsailak 17, zapatua	9 °C	7 °C	– 1/m ²
Otsailak 18, domeka	7 °C	6 °C	0,7 1/m ²
Otsailak 19, astelehena	8 °C	1 °C	– 1/m ²
Otsailak 20, martitzena	11 °C	2 °C	– 1/m ²
Otsailak 21, eguaztena	12 °C	0 °C	– 1/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitzak: 19:00.

Monja

Domekak: 18:00.

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 23:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ZAPATUA 24:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

DOMEKA 25:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA 26:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

MARTITZENA 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUAZTENA 28:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUENA 1:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 25. Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea. 943 76 24 40

Asepeyo. 943 76 16 43

Pakea. 943 76 13 49

Angiozarko medikua. 943 78 90 27

Antzuolako medikua. 943 76 62 23

Odol emaleak. 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46

Udal Artxiboa. 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia. 943 77 91 62

Kiroldegia. 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea. 943 76 26 85

Bedelkar. 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal euskaltegia. 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

zorionak!



Aritz Rezusta
28an 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Beñat.



Daniel Encabo
27an 14 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ander Kerexeta
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama, Ane,
Markel eta Paki.



Ander Aristi
28an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irene Larrañaga
26an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Alberdi
24an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Orfeoiko neskatilak.



Maddi Elortza
29an 5 urte.
Urte askotarako
sorgintxo!
Gurasoak eta Amaia.



Ladis Perez
25ean 44 urte.
Urte askotarako!
Maialen eta
Jon Ander.



Guillermo Regorigo
23an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aitor Alberdi
23an urtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olatz.



Laia Bernues
28an 3 urte.
Urte askotarako!
Lehengusu-
lehengusinak.



Felix Ormazabal
26an 90 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maialen Catalina
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Osaba-izebak eta
Soiartzte.



Elisa Amasorrain
25ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Julen, Aitor eta
Aritz.



Aitor De Benito
24an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Felix De Benito
29an 41 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Azkarate
24an 23 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nere Jauregi
24an 34 urte.
Urte askotarako!
Amilotzeko lagunak.



Elaia Inurategi
25ean 17 urte.
Urte askotarako!
Aitzol, Maialen
eta Irati.



Iñaki Igortu
25ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta
lehengusuak.



Andoni Zabalo
27an 8 urte.
Urte askotarako!
Antzuola eta Berga-
rako aitona-amonak.



Jon Madariaga
24an 8 urte.
Urte askotarako!
Unai, aitatxo eta
amatxo.



Jose Mari Lenisoro
27an 45 urte.
Urte askotarako!
Hodei eta Aitzol.



Asier Lenisoro
26an 26 urte.
Urte askotarako!
Hodei, Aitzol eta
Irati.

jardunen agenda



■ **Bergara ezagutzen lehiaketa:** Gaur, hilak 23, bigarren aldiko 1. jardunaldia izango da: 'Ekin'-'Hik galdeu'. Lehen aldiko puntuazioa honela geratu zen: 'Hik galdeu', 236 puntu; 'Perretxikoak jardunian', 223 puntu; 'Petu-Petuan', 216 puntu; Txapuzeruak, 214 puntu; 'Ekin', 213; '1. Batxilergoa', 210.

■ **Kartzelako aisialdia:** Bihar, hilak 24, Aratuste festa: 18:00etan, Kartzela ireki eta mozorroen desfilea eta merienda. Domekan, torradak egin eta dastatzeko aukera.

■ **Martxoaren 10a:** eskalada egitera goaz, interesatuok apunta zaitzte lehenbailehen!

*Hurrengo alean,
martxoaren 2tik 8ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

ebankinter
Depositua

%

(JARRI ZEUK INTERES-TASA)



BANKINTER
www.ebankinter.com

Informa zaituzte
Herri Lagunak-2ko
bulegoan

14egunerako deposituen subastetako emaitzak

Ostirala, otsailaren 16a
%7,62 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Astelehena, otsailaren 19a
%7,55 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Asteartea, otsailaren 20a
%7,51 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Asteazkena, otsailaren 21a
%7,80 UTB
Subastatu den zenbatekoa: 100 milioi

Kapitalaren eta interesaren arriskurik gabe

Subasta bakoitzean adjudikatutako interesa, egindako pujen arabera da

ANTTON JAIME

Garraio eta Errepideetako diputatuta

«Eibar-Gasteizek bidesaria behar duela badiogu, ez da inori onura egiteko»



Antton Jaime eguaztenean izan zen Bergarako Udalean.

Eguaztenean, hilak 21, Antton Jaime, Garraio eta Errepideetako diputatu nagusia, Bergaran izan zen. Bergara ekialdeko saihsbideko lanak martxoan hasiko dituztela eta, proiektua aurkeztu eta horren inguruko erakusketa inauguratzera etorri zen.

G. Noiz hasiko dira Ekialdeko saihsbideko lanak?

E. Ofizialki, lanak martxoaren bigarren astean hasiko dira. Kontratatutak esan digunez, bigarren astean makinak hemen izango dira, batik bat prestakuntza lanekin hasteko. Kontratatutak hemezortzi hilabeteko epea du lanak amaitzeko, hortaz, datorren urteko irailera amaituta egon behar duko dira.

G. Proiektuak izan du azken uneko aldaketarik?

E. Aspaldi aztertzen hasitako obra da. Hasierako proiektutik hainbat aldaketa txiki egin zaizkio, beste obra batzuetan gertatzen den bezala.

G. Saihsbideak bi xede nagusi dituela aipatzen duzue.

E. Epe ertainera, Bergarako herriari arazo larria kenduko dio, hau da, San Antoniotik geltokirainoko eguneroko zirkulazio astuna kenduko dio. Bestetik, Beasain-Durango ardatzaren zati bat izango da, eta epe ertain edo luzera, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako zirkulazioari beste irtenbide batzuk emango dizkio, eta, baita, herrialde horien arteko harremanak asko erraztu ere.

G. Eztabaida ugari egon da bi karrileko korridorea eraikiko duzuelako. Batek baino gehiagok dio autobidearen onurarako hartu duzuela erabaki hori.

E. Guk ez dugu inongo interesik inori etekinik emateko. Eta are gutxiago, esaten dugunean Eibar-Gasteiz autobideak bidesari txikia izan beharko lukeela. Azken baten, bidesari horren bitartez kontserbazio eta esplotazioko gastuak ordaintzen lagunduko da; baita hasierako inbertsioaren %30 ere.

«Saihsbideak arazo larria kenduko dio Bergarari: San Antoniotik geltokiraino doan zirkulazio izugarria»

Baina, horren bitartez, ez dugu nahi enpresa pribatuek hortik etekinik ateratzerik. Azken baten, horrelako obra garestia finantzatzeko lagundu nahi dugu.

Ardatz horrek behar bezalako neurriak izatea nahi dugu: ez handiagoak, ez txikiagoak.

Aurretik hori esanda, hilabete gutxi barru Batzar Nagusiak egingo dira, eta aztertuko duten txosten baten barruan, lau erreiko aukera lantzeko parada egongo da. Ezer ezkutatzekorik ez daukagun frogarria argia izango da hori. Hantxe datu guztiak garbi geratuko dira, eta ikusiko da ez dugula inongo interes berezirik, eta egingo dena, komeni dena eta behar dena baino ez dela izango.

G. San Prudentzioko bidegurutzeko zirkulazio arazo konpontzeko lanak ere martxoan hasiko dituzue.

E. Saihsbidearekin batera adjudikatu zen, abendu amaieran. Martxoan hasiko dira, eta irailera amaituta egongo dira. San Prudentzio-Epele bitarteko errepide zatia zuzendu egingo da, errepidea zabaldu, hamar metroraino, eta bidegurutze inguruan beste zubi bat eraikiko dugu: orain dagoenarekin batera, biribil lana egingo duena. Bestalde, Oñati aldera doan errepidea ere, hau da, bidegurutzetik irten eta lehenengo bihurtune estua zabaldu eta hobetu egingo dugu.

G. Debagoienak Gipuzkoan garrantzi ekonomiko handia du. Azpiegiturak, aldiz, oso kaskarrak.

E. Hori horrela dela onartu beharra dago. Eta horregatik, hain zuzen ere, ari gara hori guztia egiten. Orain dela bi urtetik hona inbertsio handiak egin ditugu, eta oraindik ere egingo ditugu.

B e r g a r a k o OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).**

943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko al baitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin**

(Granjako animaliak). Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ARAMBURU HORTZ KLINIKA.** Telesforo Aranzadi 1, behea.

943 76 02 46 • **ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95 • **BERGARA HORTZ KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 95 77 • **GOROSABEL J.**

Alberto. Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 •

IRIARTE Idoia. Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2.

943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren**

(Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETxea, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.**

Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.**

Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 •

ETXEBERRIA Ana. Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2.

943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA:**

GALLASTEGI Pablo. San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK:**

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotritzitatea). 943 76 14 80

• **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo

klinikoa). 943 76 30 76 ■ **SEXOLOGOAK: ANA OIARZUN** Errebal 12, 2 esk., EIBAR. 943 70 24 46

Osasunez bizi izateko!

Xabier Maria de Munibe plaza Pazkuetarako urbanizatuta egongo da

Joan den zapatuan, Bidekurutzetan, Moiuja jauregiaren ondoko eraikina bota zuten. Munibe plaza eraikiko dute hantxe. Alde zaharra eta Ibargaraiko zonalde berria lotuko ditu.

Xabier Maria de Munibe (Peñafloridako kondea izenez ezagunagoa), Mendekoste jaietarako eraikita egongo da, Josean Etxeberria Hirigintza zinegotziaren arabera. Bidekurutzetan, Zabalak Ondartza eta Moiuja jauregiaren artean, egongo da.

Urteak direla, plaza egongo den orubean Galarreta zapata denda eta Iñarre aroztegia zeuden. Gaur egun, hala ere, etxe haren



Komun publikoak eraikiko dituzte, San Martinen kendutakoak ordeztzeko.

kanpoko hormak besterik ez zen geratzen, joan den zapatuan, hilak 17, bota zituztenak.

Munibe plaza 20. Area-ko (Ibargarai ingurua) urbanizazio lanen barruan dago

aurrez ikusita. Ibargaraiko zonalde berria eta alde zaharra lotuko ditu. Izan ere, hemendik urte batzuetara, Munibe plaza Iparragirre kalearekin lotuko dute, gaur egungo kale kantoia zabal-

duz. Zuhaitz, eserleku eta argiteria izango ditu plazak, eta baita komun publikoak ere, orain urte asko San Martin plazan kendu zirenak ordezkatzeko. Plazaren aurrekontua 35 milioi pezetakoa da.

PEÑAFLORIDAKO KONDEA

Xabier Maria de Munibe edo Peñafloridako kondearen izena eramango du plazak. Izen handiko gizona izan zen: Madrilgo gortetan diputatu eta Gipuzkoako ahaldu nagusi. Idazle eta musikari ere izan zen. Muniberena da, esaterako, *El borracho burlado* opera komikoa. Bergaran hainbat urtean bizi izan zen, eta bertan hil 1785ean.

Etxanizen aldeko ekitaldiek jende ugari bildu dute

Joan den asteburuan ehunka lagunek esku hartu zuten Jose Mari Etxanizen alde herrian antolatutako ekitaldietan. Zapatuan, 1.500 lagun inguru batu ziren eguerdian egindako manifestazioan. Bergarara Plataformak deitu zuen agerraldia, eta hainbat alderdi politiko, sindikatu, erakunde eta talde atxikitu zitzaizkion: besteak beste, Udala,

EH, EA, EAJ, EHNE, ELA eta Bergarako Gazte Asanblada. Domekan, Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak omenaldia egin zion Etxanizi frontoian. Argazkian, Etxanizekin batera espetxean izan diren hainbat preso, ekitaldiko une baten.

Martxoaren 4an Topasera joateko autobusa antolatu dute. Izena ematea ohiko lekuetan.



Mitxel Sarasketak hitz egin zuen Etxanizekin espetxean egondakoen izenean.

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan


Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitartearaino

Auditoriumeko proiektuaren idazketa atzeratu egin da

Iñaki Aspiazu arkitektoak uko egin dio seminarioko auditoriumaren proiektua idazteari, Udaleko iturrien arabera. Izan ere, esleipenak ez du alderdi guztien oniritzia lortu. Ur-tarrilaren 29an egindako osoko bilkuran, EAJ-EAk, proiektua Iñaki Aspiazu arkitektoari esleitzea proposatu eta onartu zuen, PSE-EE alderdiaren aldeko botoarekin.

EHk aldiz, ezezkoa eman zuen. Aspiazuren lana inolaz ere zalantzan jarri barik, esleipen zuzena ez zuten egoki ikusi oposizioek; lehiaketa publikora atera beharrekoa dela uste dute. Zuzeneko esleipenaren arrazoia emateko orduan,



Seminarioko eliza kultura jardueretarako gune egin nahi du udalak. ARTXIBOA

Victoriano Gallastegi alkateak esan zuen, Aspiazuk San Martin plaza inguruko hainbat obra garrantzitsu zuzendu dituela, eta Errege seminarioa plazan kokatuta egonik, irizpide bateratuak iza-

teko helburuarekin esleitu ziotela.

Hori dela eta, Aspiazuk uko egin dio proiektua idazteari, Gobernu Batzordea bidalitako idatzi batean azaldu duen bezala.

Retevisionen errepikagailuari erasoa

Joan den egubakoi-tzean, 23:30 aldera, ezezagun batzuek Retevisionek Itxumendin duen errepikagailuaren txabolako atea bortxatu zuten. Ondoren, su hartzeko likidua isuri zuten, eta gero, su eman zioten, Barne Saileko iturrien arabera. Retevisionetik bertatik abisatu zioten Erztzaintzari; izan ere, telefonoarekin eta telebista emisioekin arazoak sumatu zituzten.

Suak errepikagailuaren kableak kiskali egin zituen, eta ekipo teknikoa kaltetu. Ondorioz, Urola eta Debagoieneko hainbat herritan telebista kate batzuetako emisioa moztuta egon zen ordu batzuetan. Emisio barik geratu ziren telebista kate hauek: TVE 1, TVE 2, T5, Antena 3 eta Canal+.

Ekialdeko saihsbidea ikusgai udalean

Bergara ekialdeko saihsbidearen erakusketa inauguratu zuten eguaztenez. Ekitaldian, Antton Jaime, Garrraio eta Errepideetako diputatua, Jose M^a Sarasola, Errepideetako zuzendaria, eta Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea izan ziren. Erakusketa hori, martxoaren 14a arte egongo da ikusgai, 18:00etatik 21:00etara, lanegunetan, udaleko gobernu batzorde gelan.



Odol ateraldiak eguaztenez

Hilaren 28an odol ateraldiak egingo dira Seminarioko egoitzan, 18:00etatik 20:30era. Orotako odola behar da, batez ere.

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Berrigara

441 zenbakia.
2001eko otsailaren 23a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihana Vega,
Usao Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Juan Martin Eleixpuru, Arantza Oregi,
Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga, Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigara
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Uste dozu aratustietako giruak Bergaran behera egin dabela? Zergaittik?



Ana Mari Dobao

Bai; nik neu ez naiz asko
irtetzen, baiña entzunda
daukat gero eta giro
gutxiago dagola. Ez dakit
zergaittik izan leiken.



Idoia Macias

Bai, dezente, gaiñera. Ondo
pasatzia nahi badozu,
kanpora juan bihar zara.
Udalak zeozer gehixago
antolatu biharko leuke.



Patxi Iturbe

Ez dakit, neretako, antzera.
Ni ja gutxi ibiltzen naiz
kalian-eta, ez dot hōlakorik
somatu.



Francis Sasieta

Bai, asko, gaiñera; ez dakit
zergaittik izan leiken, iogoal
garestixa irtetzen dalako
izan leike.



Begoña Garmendia

Uste dot baietz; hala be,
idea haundirik ez daukat,
ez naiz-eta asko irtetzen.
Nik uste dot jendiak beste
interes batzuk dauzkala.



Oskar Rangil

Pixkat bai; gero eta jende
gehixago ikusten da
mozorrotzeke; izan leike
jendiak beste gauza batzuk
dauzkalako buruan.

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



adituen esanetan

Ondo lo egiteko aholkuak

Lo egitea, eta are gehiago, ondo lo egitea, oso garrantzitsua da. Arnasa hartzea derrigorrezkoa da; edatea ere ezinbestekoa da bizitzeko. Edan barik, egun gutxian hilko ginateke. Jan barik ere ez genuke asko iraungo. Eta lo egin barik? Beharbada, ez diogu behar besteko garrantzirik ematen lo egiteari. Harrigarria dirudien arren, astebete baino askoz gehiago ez genuke iraungo lorik egiteke.

Lo egiteko arazoak baldin badauzkagu, ahalik eta lasterren ir-

tenbidea eman behar diogu; eta, horretarako, lorik ez egiteko arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen jakin behar dugu.

Alde batetik, egunean gai kitzikagarriak hartzea ez da batere gomendagarria. Adibidez, sarritan, kafe asko hartzen dugu, eta ez da komeni lo egiteko arazoak dauzkanak horrelakorik hartzea. Bestalde, oheratu aurretik asko jatea ere oso kaltegarria da. Afari arina egitea da gomendagarriena. Oheratu aurretik jarduera kitzikagarriak egiteak



GLORIA ENA

Yoga irakaslea

«Ondo lo egiteko, erlaxatu egin behar da; erlaxazioaren oinarria arnasa da, eta arnasa ondo hartzen ikasi beharko genuke»

ere kalte egiten digu: hala nola, eztabaidak izatea, film bortitzak edo gogorrak ikustea... Kezka edo arazoekin oheratzeak ere loari gaitz egiten dio; azkenik, esan behar da kirol edo ariketa fisiko gutxi egiten duen jendeak lo egiteko arazo gehiago izaten dituela.

Bestalde, ondo lo egiten laguntzen diguten jarduerak badaude: oheratu baino lehen, paseatzea; bainu beroa hartzea; infusio beroa edo esnea eztiarekin hartzea; logela oxigenatzea; oinak ur berotan sartzea ere asko

laguntzen du, horrela odola oinetara erakartzen dugulako, eta garuna lasaitu egiten dugu.

Horrez guztiaz gain, erlaxazioa funtsezkoa da. Erlaxatuta ez bagaude, nekeza izaten da lo egitea. Erlaxazioa da yogaren oinarria, eta, era berean, arnasa da erlaxazioaren oinarria. Arnasa ondo hartzen ikasi beharko genuke. Gortza eta burua guztiz lasaitzen ikasi beharko genuke, hori guztia arnas ariketen bitartez.

kaleen izenak

Ramon Maria Lili kalea (eta II)

Ramon Maria de Lili abokatua izan zen, eta bere bizitzan zehar makina bat kargu ere izan zituen. Gure herriko zinegotzi zen 1887an, aktetan azaltzen den bezala. Berak 1887ko ekainaren 30ean idatzitako eskutitz baten, zinegotzi karguari utzi nahi ziola jakinarazi zion Udalari; horren arrazoiak Bergarako epaile izendatuko zutela zen, eta ezinezkoa zen aldi berean zinegotzi eta epaile izatea. Udalak egindako batzarrean ontzat hartu zion kargua uztea eta, bidenabar, eskerrak eman zizkion egindako lanengatik.

Hurrengo egunean, uztailearen batean, udalbilkura egin zuten berriro, alkate berria karguaz jabetu zedin. Izan ere, garai hartan Gobernadore Zibilak zuen zinegotzi guztien artean alkatea izendatzeko ahalmena, eta Ramon Maria de Lili izendatu zuen alkate 1887tik 1889ra arte, hain zuzen. Baina ezinezkoa zen agindu hura betetzea, aurreko egunetik Lili jauna ez zelako Bergarako zinegotzi. Gauzak horrela, Udalak beste pertsona bat izendatu zuen behin-behineko alkate.

Bergarako zinegotzia izateaz gain, beste kargu batzuk ere izan zituen Gipuzkoan. Añamendi entziklopediak dioenez, Gipuzkoako diputatu izan zen, Bergarako distrituaren izenean, eta 1880ko azaroan idazkari izendatu zuten. Geroago, 1892ko azaroan, Diputazioko lehendakari hautatu zuten. Ondoren, berriz ere diputatu izan zen, eta 1905ean lehendakariorde egin zuten.

Honetaz aparte, gobernadore zibila ere izan zen. Baina alkoholaren legea zela eta, 1904an, karguari uko egin zion, bere ustez, aipatutako legea foruen kontrakoa eta Gipuzkoarako kaltegarria zelako. Liga Foral Autonomistako kidea ere izan zen.

Testua:


Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.



Oheratu baino lehen paseatzea edota bainu bero bat hartzea asko laguntzen du.

Berrigara sarean

Joan zen egubakoitzetik interneten dago gure aldizkaria. Topaguneak, euskara elkarre eta herri komunikabideen elkarteak, web orri bat sortu du, eta, besteak beste, herri aldizkariak sarean jarri ditu, tartean, BERRIGARA. Beraz, badakizue, orain, Bergarako aste-karia sarean ikusteko aukera ere badaukazue. Hona hemen helbidea: www.topagunea.com.



Zuhaitzak ikusgai

Zuhaitz astearen barruan, zapatu goizean, era guztietako zuhaitz eta landareak egon ziren ikusgai San Martin plazan: limoioondoak, lanarjondoak, bonsaiak, lorak, pinuak...Jende ugari bertaratu zen, ikusi, eta baita erostera ere, loreak, batez ere. Limoioondo eta lanarjondoak, eta baita bonsaiek ere, ikusmina piztu zuten. Zuhaitz azoka honetaz gain, **zuhaitz landaketa** ere egin zuten zapatu goizean San Martzial inguruan.

Publizista berria

Mireia Larrañaga da bera. Aurrerantzean Mireiak (argazkian, ezkerrean) egingo ditu BERRIGARAKO publizista lanak, **Uxue Zabaletaren** lekua hartuz. Aste honetan bertan hasi da lanean, eta hemendik aurrera bera izango duzue publizitate kontuatarako kontaktua. Zorte on, Uxue! Eta, ongi etorri Mireia!



FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

MP

Silvestre Muñoz, s.l.

pinturak

Pintura-lanak orokorrean
Pintura industrialia
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia. 20570 BERGARA

PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55

Eñautek 28 urte dauzka, eta mekanikako ikasketak egitten dabil. Eñaut eta bere koadrilla oso dira karnabal zaliak, eta urtero-urtero mozorrotzen dira. Aurtengo mozorrua be ja ez da sekretua: Jaizkibel konpainia izango dogu Bergaran.

Prest daukazu mozorrua?

Ez, oraindik txaketa falta jat.

Esan leike zerena dan?

Bai; Jaizkibel konpainiakuak izango gara.

Koadrillakuok beti berdin mozorrotzen zarete?

Bai; saiatzen gara, baiña zailla izaten da, koadrillan 44 bat gara eta batzuk kanpuan bizi dira.

Jantzi dozun mozorrorik gustokuena?

Sanba mozorrua.

Zer dauke karnabalek horrenbeste gustatzeko?

Giro oso polita egoten da; azken batian, urtian behin izaten da; egun berezixa da.

Behera egin ei dau karnabaletako giruak...

Bai, egixa da; gero eta jende gehiago ikusten da mozorrotzeke. Pena da.

Zenbat denpora pasatzen dozue mozorrua pentsau eta egitten?

Azkenengo momentuan egitten dogu.

Parrandazalia zara?

Bai; baiña, aspaldixan gero eta parranda gutxiago egitten dot.

Parrandarako toki bat?

Ondarru.

Bergarako jairik gustokuenak?

Sanmartzialak.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Zinera juan, antzerkera, kontzertuetara, pasiatzia...

Eñaut Uriarte

Mendixa be gustatzen jatzu, ezta?

Bai; baiña mendira be gero eta gutxiago juaten naiz.

Euskal Herriko mendirik polittena?

Gorbea.

Eskiatzera juaten zara?

Bai, badaukat ohitturia.

Urtaro bat?

Udaberrixa.

Usain bat?

Larrosiana.

Kolore bat?

Laranja.

Irakurri dozun azkenengo liburua?

Los pilares de la tierra.

Janaririk gustokuena?

Babarrunak.

Eta eztarria bustitzeko?

Ura.

Zela definittuko ziñuke zeure burua?

Pertsona alaixa naiz; irekixa be bai, saiatzen naiz, behintzat.

Bestiengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Bihotz zabalak izatia eta ingurukuei laguntzeko prest egotia.

Bukatzeko, amets bat?

Osasuna beti lagun izatia; orain arte moduan jarraitzia.




Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

**Sendabelarrak
Dietetika**



Aukera biologikoa!

- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista

Irala z/g. 943 76 30 08



Garnish


Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA



Gorlarako bidean, Neberetako kurba baino 150 bat metro beherago dago elurzuloa.



Elurzulo gehienak XVIII. mendekoak dira.

Neberetako elurzuloa eta ingurua konpontzen hasi dira

Jendeak bisitatzeko moduan egokituko dute

lazko ekainean aurkeztu zuen Kapirixok, Debagoieneko ondarea berreskuratzeko elkarteak, Gorlarako bidean dagoen Neberetako elurzuloa berreskuratu eta inguruak txukuntzeko proiektua. Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak begi onez ikusi zuten proiektu hori eta laguntzeko prest azaldu ziren. Dagoeneko hasi dira lanekin, eta, Kapirixoko kideen esanetan, maiatzerako bukatuko dituzte.

Garai batean, janaria kontserbatzeko erabiltzen zuten elurra. Baita gaixotasunei aurre egiteko ere. Elurzuloak, berriz, elurra batu eta mantentzeko. Horietako elurzulo bat Gorlarako bidean, Neberetako kurba deitzen zaion inguruan da-

go, 150 bat metro beherago, hain justu. Egoera kaskarrean dago, eta inor gutxi ezagutzen du, gainera. Horregatik, Kapirixok elurzulo hori eta inguruak txukundu, eta jendeak bisita dezan egokitzeko proiektua landu eta aurkeztu zuen. Ekainean izan zen hori, esan bezala. Orain, dagoeneko hasi dira berreskuratze eta garbitze lanekin.

ELKARLANEAN

Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak begi onez ikusi zuten proiektua, eta laguntzeko prest azaldu ziren hasiera-hasieratik. Diputazioak milioi eta erdi pezetako dirulaguntza emango die Kapirixoko kideei. Hori bai, diru hori jasotzeko maiatza baino lehen bukatu beharko dituzte lanak.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreaka 13 behea ☎ 943 76 55 00



Matxiategi
Elektragintza
S.L.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.


Udalarekin ere harreman estua izan du te Kapirixokoek. Udalak garbiketa eta konponketa lanetarako beharrezkoak diren materialak, bitartekoak eta falta-ko den dirua jarriko ditu. Kapirixoko lagunek, berriz, eskulana.

EGOKITZAPEN LANAK

Errepideak Neberetako kurbaren barrualdean uzten duen lekuan aparkalekua egitekotan dira. Bertan, lauzpabost kotxe edo autobus batentzat lekua egongo da. Bidearen beste aldean ere bizpahiru kotxerentzat lekua izango duen aparkaleku txikia egokituko dute. Horrela, kotxean bertaraino joateko aukera izango du jendeak. Aparkalekutik elurzuloraino jaisteko, berriz, oinezkoendako bidezidor bat egingo dute. Horretarako, lurra lautu eta area botako dute. Bidezidorra errepide aldeko muga zehar egingo dutenez, hesi bat jarriko dute segurtasun neurri bezala. Inguruan dauden pinuak bota dituzte dagoeneko, eta bertako zuhaitzak landatuko dituzte, pagoa, esaterako. Pagoak badu elurzuloekin zerikusirik. Izan ere, elur kapa ezberdinen tartean pagoaren ostoa sartzen zituzten, elurrak botatako ura iragaz zedin, eta, era berean, izotz blokeak errazago atera ahal izateko.

ELURZULOA GARBIKETA BEHARREAN

Elurzuloa bera ere egoera kaskarrean dago. Datorren domekan bertan barrualdea txukunduko dute Kapirixokoek. Sasiak eta bestelako zikinak aterako



Irudian adierazita dagoen aparkalekutik elurzuloraino bidezidor bat egingo dute.

Hozkailuen arbaso

Elurraren eta izotzaren garrantzia antzinatek ezagutu izan du gizakiak, bai janariak bai edariak mantentzeko, eta baita medikuntzarako ere. Elurra egiten zuenean, elurra pilatu eta zulora botatzen zuten. Handik etxeetara eramaten zuten.

Bergarako Udalak, XVIII. mendean, 350 errealeko errenta ordaindu zion maizterrari, eta, horrek, martxo eta azaroa bitartean, herria izotzez hornitu behar izan zuen.

dituzte zulotik, udalak lagatako lumakamioi baten laguntzaz. Baina elurzuloa eta inguruak garbitzeaz gain, jendeak bisita dezan ere egokituko dute. Horrela, elurzuloa estali egingo dute hesi metaliko, eta polikarbonozko plakaz. Era horretan, segurtasuna bermatu nahi dute (jendea erortzeko arriskua ekidinez), eta elurzulo barnera zikinkeria eta bestelakorik sartzea saihestuko dute. Panel informatiboak ere jarriko dira elurzuloaren alboan, marrazkiz hornituta. Panel horietan elurzuloak nola eta zertarako erabiltzen zituzten azalduko dute.<

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tf. 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Ohorezko mailako BKEko gazte futbol taldea, mailari eusteko gertu

Bergara KE.ko ohorezko mailako gazte taldeak Donostiako Kostkas taldearen aurka jokatuko du zapatuan, hilak 24, Ipintzako futbol zelaian, 18:30etan. Talde bergararrak joan zen denboraldian lortu zuen ohorezko mailarako iguera.



Jose Mari Aranbururen gazte taldea denboraldi txukuna egiten ari da.

IÑIGO ZAITEGI

Azken jardunaldian Hernanin 3-2ko emaitzarekin galdu ondoren, mahoneroak sailkapenaren erdialdean dira. Orain arte jokatutako 22 partiduetatik 9 irabazi, bost berdindu eta gainerako zortziak galdu egin ditu Jose Mari Aranburu Tximistek entrenatzen duen taldeak. Jokalariak ondo baino hobeto ezagutzen ditu, gehienekin orain dela sei urtetik ari baita lanean. Bere hitzetan, «ekipo gaztea daukagu eta urte bateko aldea nabaritzen da horrelako kategorietan. Hala ere, taldea on-

do ari da eta etxean jarraian jokatuko ditugun bi partiduetatik irabazteko, mailari eutsiko diogu».

Datorren astean Urolaren aurka jokatuko du Bergarak, Ipintzan berriz ere. Aranbururen ustez, «gure lehenbiziko helburua mailari eustea da, geratzen diren partiduetan lasaiago joka-

tzeko. Nik uste dut datorren urtean bere mailarik onena emango duela taldeak, eta sailkapenaren aurrealdean sartzeko borrokan izango gara ziurrenik». Tximist oso pozik dago jokalarien jarraitzearekin; «gogor entrenatzen dute eta ondo ari dira jokatzen. Talde sendoa osatu dugu eta indibidualitateak

baino blokea destakatuko nuke». Bergarak Ipintzako zelaian jokatzen ditu partiduetatik eta Aranburuk taldeari noizean behin Agorrosinen jokatzeak aukera ematea igartzen du faltan, «azken batean, harrobiko jokalariei belarrean jokatzeak ohitzea primeran etorriko zaielako etorkizunerako».

Ariznoako gimnastak aurreneko postuetan

Ariznoa taldeko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten domekan Kiroldegian jokatutako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian. B taldeko eskola mailako neskatilak izan ge-

nituen lehian. Alebin mailan Sarai Gallego bosgarren geratu zen; infantil mailan Irati Arteagak irabazi zuen eta Virginia Odriozola laugarren postuan sailkatu zen. Azkenik, kadete mailan,

Iraitz Gastiain laugarren izan zen, Uxue Arregi bosgarren eta Maialen Toledo seigarren. Sonia Corredera Ariznoa taldeko entrenatzailearen arabera, «oraindik ere guztiek Gipuzkoako finale-

rako sailkatzeko aukerak dute». Hurrengo jardunaldia Arrasaten jokatuko da, martxoaren 31n. Taldekako proban, alebin eta infantil taldeak ere ondo aritu ziren domekan.

SANTOS

IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA

• SUKALDEKO ALTZARIAK •

ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79




Urteaga 9

Tf. 943 76 18 45

Jubenil eta seniorrak sendo Deba arroko txapelketan

Deba arroko txapelketaren barruan, Bergarak eta Arrasatek indarrak neurtu zituzten martitzenean Udal Pilotalekuan. Kadete mailan Ibai Altunak eta Asier Larrañagak 14-22 galdu zuten Arrasateko bikotearen aurka. Bestalde, gazte mailako Julen Aranburu eta Joseba Herran bergararrak 22-19 nagusitu zitzaizen arrasatearrei eta, azkenik, seniorretan, Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek 22-16ko emaitzarekin irabazi zuten. Deba arroko txapelketa bi multzotan banatzen da: Debagoienekoa eta Debabarrrenekoa. Debagoieneko ligaxkan Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Antzuola eta Bergarako bikoteak ari dira. Dagoeneko lehen itzulera amaitu da eta Bergarako taldeari dagokionez, jubenilek eta seniorrek dute aukera gehien finalerdietarako sailkatzeko. Lehen itzuleran seniorrek partidu guztiak irabazi dituzte



Herranek eta Aranburuk (ezkerrean) 22-19 irabazi zuten martitzenean.

(Antzuolak ez dauka senior mailako bikoterik) eta jubenilek bi irabazi eta hiru galdu dituzte.

FINALAK ANTZUOLAN

Kategoria bakoitzean bi bikoterik onenak sailkatuko dira finalerdietarako. Reyes Azkoitia BKE.ko pilota sailleko entrenatzailearen arabera, «jubenil mailan galdutako partiduak diferentzia gutxigatik galdu ditugu eta

itxaropena badaukat oraindik aurrera egiteko, bikoteak oraindik ez duelako bere mailarik onena erakutsi. Kadetetan, berriz, ia ez dugu aukerarik sailkatzeko eta herri arteko txapelketarako gertatu beharko dugu bikotea». Herri arteko txapelketa martxo bukaera aldera hasiko da. Bestalde, Deba arroko txapelketako finalak Antzuolan jokatu dituzte, apirilaren 29an.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Urki

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua, 12:00. Ipintza.

Bergara-Aurrera Ondarroa

Hirugarren maila
Zapatua, 16:30. Agorrosin.

Bergara-Kostkas

Ohorezko jubenilak
Zapatua, 18:30. Ipintza.

Bergara-Antoniano

Lehen mailako jubenilak
Domeka, 17:00. Ipintza.

PILOTA

Bergara-Aretxabaleta

Deba arroko txapelketa
Martitzenean, 19:00etan,
Udal Pilotalekuan.

Peña Athletic taldearen irteera

Peña Athletic taldeak datorren martxoaren 11n Athleticek eta Villarrealek San Mamesen jokatuko duten partidurako irteera antolatu du. Izen-ematea otsailaren 25era arte zabalik dago Toki-Ona bodegoian. Argibideak bertan.



Gozogintzan
aitzindari.

Alkandorak	1.000 pta.
3 galtzontzilo	.600 pta.
2 body	.900 pta.
Nikia	.800 pta.
Jertsea	1.500 pta.
3 slip	.400 pta.
Txandalaren prakak	.900 pta.
Albornoza	.800 pta.
Bata, manga luzea	1.900 pta.
Bata, manga motza	1.200 pta.

Gallastegi
Jostundegia

San Pedro, 15 ☎ 943 76 10 85

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Eri-Fac	1-8
Errotagain-Torrekua	12-1

B MULTZOA

Cine Bank Irimo-Agirrebeña	10-3
Bayer-Aterpe	3-3
Amilotx-Etengabe	7-1
Ortzi-Vacalouras	3-8

C MULTZOA

Mongatxurak-K. Piperrak	14-5
Patxaran Team-Artusamak	1-6
Txipiron-Guadalest	2-7

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Amilotx-Aterpe	Irubide
17:00: Buya-Irubide	Pagomendi
18:00: Pagomendi-Apa Oxemai	Buya

DOMEKAN, BARRUAN

17:00: Latex-Guadalest	Mongatxur.
18:00: Mongatxurak-Patxaran Team	P.Bergara
19:00: Pinturas Bergara-Vacalouras	Patxaran T.
20:00: A Ze Flaxa-K. Piperrak	Vacalouras

ARGI!

Sei jardunaldi faltan

Ligako lehen aldia amaitzeko sei jardunaldi besterik ez dira falta. Multzo bakoitzeko lehen-dabiziko bost taldeak eta hiru multzoetatik seigarren onena sailkatu dira ligako play-offetarako. Gaintzeko taldeek kopa txapelketa jokatzeari ekingo diote.

Antolatzaileen oharra

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Ezinleike taldeak bigarren itzuleran jokaturako partiduak ez dira kontuan hartuko. Lehen itzulerakoak, ordea, baliagarriak dira.

Cine Bank Irimo, Bayer

Cine Bank Irimo taldeak sailkapenean gora egin du Agirrebeñari irabazi ostean. Bayerrek Aterpe liderraren aurka berdindu egin zuen.



GORA eta BEHERA



Etengabe, Torrekua, Komando Piperrak

Etengabe B multzoko azken tokiari dago; Torrekuak gol zaparrada jaso zuen azken jardunaldian, eta Komando Piperrak-ek uste baino errazago galdu zuen (14-5).

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	40	15
2. Errotagain	37	16
3. Bar Canalejas	28	15
4. Pagomendi	26	15
5. Bildurbarek Opel Lam	25	14
6. Amoskibar	24	15
7. Fac	23	15
8. Buya	14	14
9. Eri	13	16
10. Irubide jabetxea	11	14
11. Torrekua	9	16
12. Apa Oxemai	7	15

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	35	13
2. Ortzi	27	12
3. Aluminios Kresala	26	13
4. Kanpazar Harrobia	25	13
5. Amilotx	23	13
6. Pinturas Bergara	19	12
7. Bayer	14	13
8. Vacalouras	10	13
9. Cine Bank Irimo	7	14
10. Agirrebeña jabetxea	6	13
11. Etengabe	4	13

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	33	13
2. Artusamak	25	11
3. Guadalest	24	12
4. Mongatxurak	21	11
5. Komando Piperrak	19	11
6. Txipiron	16	12
7. Shaktale	13	11
8. Patxaran Team	4	12
9. Latex	1	12

Informazio hau babesle hauei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein
Saria

Sailkapen orokorra:

- Aritz Arabiourrutia.....10 puntu
- Arkaitz Arana.....9 puntu
- Koldo Erostarbe.....9 puntu
- Josetxo Lizarralde.....8 puntu

Etzeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina



Banatzaile ofiziala

PATATAK

1 -FRUITUAK	375
2 -BRABAK	375
3 -ALIOLI	375

BOKATAK

4 -PATATA TORTILA	500
5 -BEJETALA	500

SOLOMOA

6 -SOLOMO HUTSA	450
7 -ROKEFORT SALTSAREKIN	500
8 -PIPAR BERDE ETA GAZTAREKIN	500
9 -PIPAR GORRIKIN	500
10 -TXANPINOI SALTSAREKIN	500
11 -GAZTAREKIN	500
12 -PATE ETA OPORTOZ POTXATUTAKO KIPULAREKIN	550

OILASKO PETXUGA

13 -TXANPINOI SALTSAREKIN	550
14 -ROKEFORT SALTSAREKIN	550
15 -YORK URDAIAZPIKOA ETA MAIONESAREKIN	550
16 -URDAIAZPIKOA GAZTAREKIN	550

URDAIAZPIKOA

17 -TOMATE ETA TXATKAREKIN	500
18 -TXATKAREKIN	500
19 -GAZTAREKIN	475
20 -URDAIAZPIKOA	450
21 -PIPAR BERDEAK ETA GAZTAREKIN	500

HIRUGIHARREA

22 -GAZTAREKIN	475
23 -GAZTA ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	500
24 -PERRETXIKO ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	550

HANBURGESAK

25 -OPORTOZ POTXATUTAKO KIPULA ETA TXANPINOI SALTSAREKIN	550
26 -HANBURGESA HUTSA	475
27 -PIPAR BERDE ETA GAZTAREKIN	525
28 -ROKEFORT SALTSAREKIN	525
29 -LETXUGA ETA TOMATEA MAIONESAREKIN	550

SANDWICHAK

30 -YORK URDAIAZPIKOA ETA GAZTA	425
31 -LETXUGA, TOMATEA, YORK URDAIAZPIKOA, GAZTA, ATUNA ETA MAIONESA	475
32 -LETXUGA, TOMATEA, YORK URDAIA, GAZTA, TXATKA ETA MAIONESA	475

GEHIGARRIAK



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

**ZERBITZARIA
BEHAR DUGU,
ASTEBURUETARAKO.
DEI EGIGUZU
LEHENBAILEHEN!**

Deitu eta eskatu telefonoz!

SUKALDEKO ORDUTEGIA

GOIZEZ: Astelehenetik ostiralera, 13:00-15:00. Larunbat eta igandetan, 13:00-14:30
ARRATSALDEZ: Igandetik ostegunera, 19:00-22:00. Ostiral eta larunbatetan, 19:00-23:00



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

bonofotoa


Orain aste batzuk *Berrigarán* agertu zenaren arabera, zein urtetan agindu zuen udalak Espoioian kontzertuetarako kiosko bat egitea: 1924, 1934 ala 1944an?

galde debalde

1. Zein beste izenekin ezagutzen dugu Xabier Maria Munibe?
A- Moiuaneke Xabier
B- Rocaverdeko markesa
C- Peñafloidako kondea

2. Non dago garbitzen eta konpontzen ari diren Neberetako elurzulooa?
A- Elosun
B- Gorlarako bidean
C- Uberarako bidean

3. Nor da Txalo taldearen *Emaztea kapelarekin...* lanaren zuzendaria?
A- Ramon Barea
B- Itziar Lazkano
C- Peter Brook



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du **BERRIGARAK** asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Imanol Cerdeira**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Imanoli!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Etxeberrieta Gainekoa eta Urarte kalea**
Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Marcilla
kafea, 250 gramoko paketea

189 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Egubakoitzean hasi eta martitzena arte mozorroak eta musika aratusteetan

Datorren zapatuan hasiko dira inauteriak. Zapatutik martitzenera bitartean, hainbat ekitaldi egongo dira ikusgai. Batzuk kale ikuskizunak izango dira, eta beste batzuk, areto barrukoak.

Zapatuan, 16:00etatik 19:00etara, Kirik taldeak umeendako jolasak prestatuko ditu San Martin plazan: arku tiroa, jolas tradizionalak eta gaur egungoak egongo dira; 18:30etik 19:30era, Txatunga Benbe perkusio taldearen kalejira egongo da; 19:00etan, buruhandi eta erraldoien kalejira, udal txistulari banda eta Kobok dultzaineroek lagunduta; 19:30ean, Xamatx dantz taldeko kideek hainbat dantza eskainiko dituzte herriko kaleetan; eta horren



Giroa gehien alaizten duen taldea saritu egingo du udalak.

ondoren, 21:00ak arte, Txatunga Benbekoek ekingo diote berriro ere kalejirari; gaueko 21:30ean, zezensuzkoa egongo da San Martin plazan; 23:00etan, dantzaldia, Akelarre taldearekin.

Domekan, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek

Parrandan ikuskizuna eskainiko dute Udal Pilotalekuan, 17:30ean; 18:00etan, Luhartz-ek dantzaldia eskainiko du San Martin plazan.

MARTZITZEN ARATUSTEA

Martitzenean, hilak 27, arratsaldetik izango dugu inau-

teri giroa: 16:30ean, Musika Eskolako txarangak kalejira egingo du, eta 17:00etan, Detraka taldeak jarraituko dio; 18:30etik 20:30era, Gaubela musika taldeak dantzaldia egingo du San Martin plazan; horren ostean, ohiko sardina-ehorzketa egingo da. Sardina kultura etxetik irtengo da, eta prozesioan parte hartu nahi duena hara joan daiteke. Kandelak ere banatuko dituzte. Azkenik, aratusteak amaitzeko, sardinaren ehorzketaren ondoren, Gaubela taldeak dantzaldia egingo du, gaueko 22:30etik 00:30era.

Bestalde, Bedelkar dendarien elkarteak 25.000 pezetako afari-merienda emango dio jaietan kalea gehien girotzen duen taldeari.

'Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona...' Novedadesen


Txalo Produkzioak-en azken lana dugu, eta datorren egubakoitzean, hilak 2, obra ikusteko aukera izango dugu Novedades aretoan, 22:30ean. Oliver Sacksen saiakera neurologiko baten oinarritzen da. Peter Brook-ek antzerki bihurtu zuen, eta Txalo Produkzioak-ek Brook-en hariari isto-

rio gehiago erantsi eta egokitu dizkio.

Brook-ek antzerkira egokitutako lanak ez du ohiko egitura -hau da: planteamendua, korapilota eta amaiera-. Mediki istorioa izanik, berez da bizia. Izan ere, *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona...* 1985ean argitaratutako kon-


taketa klinikoaren liburu baten izenburua da.

Txaloren lanean Ramon Bareak egin ditu zuzendari lanak. Aktoreak hauexek dira: Ramon Barea bera, Paco Sagarzazu, Inaxio Tolosa, Ander Lipus, Itziar Lazkano eta Jone Irazabal. Horrez gain, mediku aholkulari Fernando Sadaba aritu da.



Paco Sagarzazu.

ESPOLON



School of English

IKASTARO Trinkoak

Cambridgeko azterketetarako prestaketa berezia:

First•Advanced•Proficiency

Apirilaren 23tik ekainaren 22ra

Informazioa:

Ibargarai, 31 (Barruko plaza)

Tel. eta faxa: 943 76 03 53

posta elektronikoa:

espolonschool@teletel.es



Aratusteak, 1983

Aratusteak ospatuko dira astebukeran eta datorren martitzenean. Mozorrotzeko ordua heldu da, eta giro alai nagusituko da herriko kaleetan. Udalak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu egunotarako. Oraingo asteko erretratu zaharra duela 18 urtekoa da, 1983koa, hain zuzen ere. Roman Larrañaga argazkilaria ohiak Simon Arrietan zeukan dendaren ondoan ateratzen zizkien argazkiak mozorrotzen ziren taldeei eta koadrilei. Sasoi hartan, gehienak aratusteetako martitzenean mozorrotzen ziren, eta arratsalde eta gauz giro bikaina zegoen. Gaur egun, badirudi jendeak nahiago duela zapatuan mozorrotzea. Hala ere, animazioa ez da faltako martitzenean, batez ere gaztetxoentzat.

Argazkian agertzen den laukotea ez da kigu zehatz-mehatz zertaz mozorrotu zen, baina ziur gaude primeran pasatu zutela. Umorea ez zitzaion falta, dudarik gabe. Hauek dira argazkian, ezkerretik eskumara, agertzen direnak: *Fontsi Miner*, *Jose Miner*, *Ketsus Manzano* eta *Txema Garcia*.

Argazkia: Murgizu

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Erne ibiltzeko moduko filmek.

IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Kruz Gallastegi 7. 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es



CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES AND DIPLOMAS
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE

University of Cambridge / Local Examinations Syndicate

AZTERKETAK ETA DATAK

Starters (azterketa osoa)	Ekainaren 2an	larunbata
Movers (azterketa osoa)	Ekainaren 2an	larunbata
Flyers (azterketa osoa)	Ekainaren 2an	larunbata
K.E.T. (Papers 1, 2)	Ekainaren 9an	larunbata
K.E.T. (Papers 3)	Ekainaren 2an	larunbata
P.E.T. (Papers 1, 2)	Ekainaren 9an	larunbata
P.E.T. (Papers 3)	Ekainaren 2an	larunbata
F.C.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 16an	larunbata
F.C.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 2an	larunbata
C.A.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 13an	asteazkena
C.A.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 2an	larunbata
C.P.E. (Papers 1, 2, 3)	Ekainaren 14an	osteguna
C.P.E. (Papers 4, 5)	Ekainaren 2an	larunbata
B.E.C. 1 (azterketa osoa)	Ekainaren 6an	asteazkena
B.E.C. 2 (azterketa osoa)	Ekainaren 2an	larunbata
B.E.C. 3 (azterketa osoa)	Ekainaren 5ean	asteartea

CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE EIBAR ES-438

Azterketak Eibarren
Matrikulak martxoaren 1etik 15era

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK:

ARRASATE	Parlance	943 77 06 83
BERGARA	Espolon School of English	943 76 03 53
DURANGO	Compubit English Institute	94 620 20 20
EIBAR	Anglo-American Link Idiomas Ukitze	943 20 64 57 943 20 39 59 943 20 16 78
ELGOIBAR	Key Ingeles Akademia Kensington School of English	943 74 30 44 943 74 02 36
LEKEITIO	Anglo-American Link	630 538 076
ONDARROA	Howdy Academy	94 613 43 26
OÑATI	A & M School of English	943 71 61 37

Citroën
Xsara berria



500.000
pezetarainoko deskontua



CITROËN

ION AUTOAK

Amillaga, 36. Bergara. Tel. 943 76 47 49 / 73